

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### Ingurumena babesteko ordenantzaren behin betiko onespena

Legutioko Udalak, 2022ko apirilaren 6an egindako osoko bilkuran, ingurumena babesteko ordenantzaren hasierako onespena ebatzi zuen; geroago, 2022ko apirilaren 27ko ALHAOn, 48. zenbakian, argitaratutako iragarkia dela bide, jendaurrean jarri zen eta, azkenik, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi ondotik, behin betiko onartu da

Hori guztia argitara ematen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikulua xedatzen dituzten ondorioetarako, ordenantzaren testu osoa argitaratu dela.

Legutio, 2023ko urriaren 30a

*Alkatea*

*NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTAZAR*

### LEGUTIOKO INGURUMEN BABESARI BURUZKO ORDENANTZA

#### HITZAURREA

Ingurumen arloko udal ordenantzek osatzen duten xedapenen multzoa baliatuz, toki araubide lotu egiten zaie Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko antolamendu juridikoei, eta, hala, sistema bakarra eratzen da ingurumenaren kalitatea zaindu, babestu eta hobetzeko nahiz pertsonen osasuna babesteko eta baliabideak zentzuz erabiltzeko helburuz.

Legutioko Udalak 2000ko abuztuaren 11ko ALHAOn argitaratu zuen ingurumena babesteko lehen ordenantza. Arlo horri atxikitako bigarren ordenantza, lehenengoa oso-osoan ordeztu zuena, 2010eko martxoaren 17an argitaratu zen. Geroago, funtsezko arau aldaketak onartu zirenez gero, ordenantzaren beste eguneratze bat argitaratu zen 2013ko abuztuaren 26an.

Azken lege testu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren antzera egituratu zen, tokiko esku-hartzea izan zezaketen gaien inguruan: ingurumenean eragina izan dezaketen jarduerak, uren babesa, lurzoruen babesa, airearen babesa, zaratak eta bibrazioak, hondakinak, suteen aurkako babesa eta abar. Zenbait kasutan, araututakoaren norainokoa, funtsean, aplikatzekoak ziren udalaz gaindiko arauetan jasotakoaren kidekoak ziren.

Hala eta guztiz ere, ingurumenaren esparru juridikoa nabarmen aldatu da azken urteotan, eta horrek ekarri du Legutioko udal ordenantza egokitzeko beharra. Ordenantza honen egokitzapenak oinarritzko bi irizpideri heldu behar die.

Alde batetik, Legutioko Udalak eragile guztien erantzunkidetasuna ikusarazi nahi du ingurumena eta pertsonen osasuna babesten gogotik parte hartzeko orduan, eta, beraz, ordenantza eragile horien inguruan antolatzeko ebatzia hartu du. Horrela, atariko tituluak, besteak beste, aplikatzeko printzipio orokorrak dakartza eta, horren ondotik, I. tituluak herritarrak ditu ardatz, II. tituluak ingurumenean eta pertsonen osasunean eragina izan dezaketen jarduerak jorratzen ditu eta III. tituluak udalaren jarduna aletzen du.

Beste alde batetik, oro har hartuta, erabaki da udalez gaindiko arauetan jasotako legezko betekizunak ordenantzan ager daitezen saihestea, edukien bikoiztasuna ekiditeko, bai eta ordenantza aldatzeko beharra ezartzea ere, udalez gaindiko legezko esparrua aldatzen den guztietan. Horrela, ordenantzak arautzen dituen edukiak eragile mota bakoitzari dagozkion betebeharrak bete daitezen erraztea helburu duten alderdi zehatzetan funtsatzen dira, batez ere.

## ATARIKO TITULUA

### I. kapitulua. Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da ingurumena babesteko arauzko esparrua ezartzea Legutioko udalerrian, tokiko erakundeei dagozkien eskumenen esparruan.

#### 2. artikulua. Eragin eremua

Ordenantza honetan jasotako xedapenak ingurumenaren kalitatean edo Legutioko udalerrian bizi diren pertsonen osasunean eragina izan dezakeen edozein pertsona fisiko edo juridikori aplikatuko zaizkio.

#### 3. artikulua. Printzipio orokorrak

Ordenantza honek arautzen dituen printzipio orokorrak honako hauek dira

- Gizabanakoen osasuna eta ingurumena babesteko arreta printzipioa.
- Eragile guztien erantzunkidetasun printzipioa.
- Kutsatzen duenak ordaindu behar duelako printzipioa eta kutsatzailearen erantzukizunaren printzipioa.
- Buruaskitasun, hurbiltasun eta unibertsaltasun printzipioak.
- Bizi zikloaren ikuspegiaren eta klima aldaketa arintzearen printzipioa.
- Zirkulartasun printzipioa.
- Iraunkortasunaren eta merkatu berdea sustatzearen printzipioak.
- Hondakinak kudeatzeko hierarkiaren printzipioa.
- Informazio, gardentasun eta partaidetza printzipioak.
- Kudeaketa eraginkorraren printzipioa.

## I. TITULUA. HERRITARRAK

### I. kapitulua. Eskubideak eta betebeharrak

#### 4. artikulua. Eskubideak

Pertsona guztiek eskubide hauek dituzte:

- Baldintza berdinetan, ingurumen egokiz gozatzea.
- Zuzenean edo elkarteen bidez, ingurumena babesteko politiken diseinuan eta erabakietan, dagozkion arauetan parte hartzea, arauz ezarritako baldintzetan.
- Ingurumenaren eta baliabide naturalen egoerari buruzko informazioa lortzea eta ingurumenaren arloko justiziara jotzeko modua izatea.
- Euskal herri administrazioei ingurumen-legerian ezarritako betebeharrak bete ditzatela eskatzeko ekintza publikoa gauzatzea.
- Administrazio publiko eskudunetako organoek administrazio onaren printzipioen arabera jardutea, gardentasuna, eragingarritasuna, ekonomia eta eraginkortasuna bermatuz, interes orokorrari erantzuteko helburuz.

**5. artikulua. Betebeharrak**

Pertsona guztiek betebeharrak hauek dituzte:

- Ingurumena babestea, zaintzea eta hobetzea.
- Hondakinen sorrera, airera egiten diren isurketak, zarata, bibrazioak, usainak, argi kutsadura eta uretara nahiz lurrrera egiten diren isurketak saihestea edo, hala badagokio, murriztea.
- Hala badagokio, eraldatutako ingurumena lehengoratztea.
- Ingurumenean eta pertsonen osasunean eragina izan dezakeen edozein jarduera egiteko administrazio titulu egokia izatea eta dena delako jarduera hori egiteko ezarritako baldintzak betetzea.

## II. kapitulua. Zaratagatiko eragina

**6. artikulua. Zaratari buruzko gogoeta orokorrak**

Auzotarrak ez dira gogaitu behar honako hauek eginda:

- Zaratak ateratzea, hala nola oihu egitea, musika ozenegi jartzea, jaiak ospatzea, soinu erreproduzigailuak erabiltzea bolumen handiegian eta entzungailurik gabe edo antzeko beste jokabide batzuk izatea.
- Gaueko ordutegian (23:00etatik 7:00etara), bide edo esparru publikoetan edo jabetza pribatuko eta erabilera publikoko kanpoko esparruetan egotea, beste pertsona edo pertsona talde batzuekin batera.

**7. artikulua. Etxebizitzetan zarata atera daitekeen ordutegia**

Etxebizitzetan barruan, zarata atera dezaketen etxeko lanak edo jarduerak 8:00etatik 20:00etara egingo dira astelehenetik ostiralera, eta larunbatetan 08:00etatik 15:00etara; inoiz ez jaiegunetan, udalaren berariazko baimena izan ezean. Udalak horretarako baimena ematen badu, alboko bizilagunei jakinaraziko die, behintzat, informazio oharrak atarietan jarrita. Ohar horietan, ondoko informazioa jasoko da:

- Jardueraren sustatzailearen nortasuna.
- Jarduketa gauzatuko duen eragilearen nortasuna.
- Baimendutako jarduketaren azalpen laburra.
- Baimenak aintzat hartzen dituen datak.
- Jarduketari buruzko kexak aurkezteko tokia eta modua.

Oro har, baimendutako ordutegitik kanpoko lanak egiteko baimena edozein unetan ezeztatu ahal izango da, kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta.

## III. kapitulua. Hondakinengatiko eragina

**8. artikulua. Hondakinen prebentzioa**

Etxeko jardueren zioz sortutako hondakinak murrizteko neurriak hartu beharko dira, batez ere, elikagaiak alferrik galtzeagatiko hondakin biologikoak sortzeari eta erabilera bakarreko gaiak erabiltzeari dagokionez.

**9. artikulua. Berrerabiltzeko prestatzea**

Baztertu nahi diren eta balio bizona oraindik agortu ez duten gaiak bigarren eskuko bilketa, truke edo salmenta zirkuituetan entregatu beharko dira.

**10. artikulua. Hondakinak bereiztea eta leku egokian uztea**

Sortutako hondakinekin, honela jokatu behar da:

- Behar bezala bereizi beharko dira, horien izaeraren arabera.
- Edukiontzia egokietan utzi beharko dira edo, bestela, hondakin mota bakoitzeko prestatutako bilketa zirkuituetara eramanda.
- Kasuan-kasuan araututako bilketa egun, ordu eta baldintzei jarraiki utzi beharko dira.
- Tolestuta edo zatituta utzi behar dira, horretarako modua ematen duten hondakinak badira, horien ezaugarriak direla eta gaikako bilketa sistemaren erabilera zuzena galaraz dadin saihesteko.

Inausketa eta lorezaintza lanetako hondakinak autokonpostatu beharko dira edo, bestela, garbigune, edo gune berde batera eraman.

Udalak informazio eguneratua eskainiko die herritarrei, unean-unean erabilgarri dauden bilketa zerbitzuei buruz eta zerbitzu horiek arautzen dituzten berariazko baldintzei buruz (egutegia, ordutegia, uzteko guneak eta abar).

**11. artikulua. Etxeko edo banako konpostatzea**

Udalak etxeko konpostatzea sustatuko du, etxeko hondakin biologikoak kudeatzeko bide gisa, bereziki, etxeko konpostagailu bat jarri eta maneiatzeko beharrezko ezaugarriak dituzten etxebizitzetan bizi diren herritarren artean.

Horretarako, udalak informazio eta sentsibilizazio kanpainak egin, konpostatzeari buruzko prestakuntza jardunaldiak eskaini edo etxeko konpostatze ontziak banatu ahalko ditu, egokitzen jotzen duen guztietan. Udalak etxeko konpostatze ontziak eskaintzen baditu, interesdunek material horiek jasotzeko berariazko eskaera inprimaki bat bete beharko dute, eta etxean sortutako hondakin biologikoak etxeko konpostatzearen edo banakako konpostatzearen bidez kudeatzeko konpromisoa adierazi beharko dute.

Etxeko konpostatzea egiteko konpostagailuak titulartasun pribatuko lurzoruan instalatu beharko dira, gutxienez, inguruko etxebizitzetako eraikinetatik 5 metrora. Konpostatzea egoki egin beharko da, bizilagunei eragozpenik ez eragiteko moduan, usainak, intsektuak edo karraskariak ugaritzea direla eta.

**12. artikulua. Komunitateko konpostatzea**

Komunitateko konpostatze guneak ezin izango dira kokatu natura babesteko eremuetan edo ur hartuenean babes perimetroetan.

Komunitateko konpostatze gunearen sarbideak aukera eman behar die suhiltzaileei eta erreskate-zerbitzuei erraz esku har dezaten. Sarrerako bidea garbi egongo da, sarrera eragotz dezakeen inolako objekturik gabe.

Komunitateko konpostatze guneak ingurunean txertaturik gera daitezen zainduko da.

Komunitateko konpostatze guneen mantentze lanak bermatu beharko du behar bezala funtzionatzeko beharrezko baldintzak betetzen direla, eta higiene nahiz osasun baldintza egokiak bermatu beharko ditu. Horretarako, tenperaturaren kontrola egin beharko da, organismo patogenoak hiltzeko tenperatura egokia lortzen dela egiaztatzeko; iraulketa eta aireztapen lanak egin beharko dira oxigenoa egon badagoela bermatzeko; eta etxeko hondakin organikoen ekarpenaren eta material egituratzailearen (inausketa hondar birrinduak) arteko oreka egokia dela egiaztatu beharko da.

Udala edo horretarako kontratatzen diren zerbitzu teknikoak arduratuko dira komunitateko konpostatze guneen mantentze, jarraipen eta kontrol lan oinarritzakoak egiteaz. Gune horietan, udalak bermatu beharko du material egituratzailea egongo dela horretarako prestatutako moduetan, material hori guztiz beharrezkoa baita erabiltzaileei eskatzen zaien lankidetzatza taxuzkoa izan dadin.

Komunitateko konpostatze guneetan parte hartu nahi dutenek izena emateko berariazko inprimakia aurkeztu beharko dute udaletxean, eta hitzordua adostu beharko dute udalaren zerbitzu teknikoekin, behar bezala parte hartzeko beharrezkoak diren azalpenak jasotzeko. Era berean, erabiltzaileek lagundu beharko dute komunitateko konpostatze guneen funtzionamendu egokia bermatzeko; hala, helburu horretarako, ingurumen arloko udal zerbitzuek ematen dituzten jarraibideak eta abisuak bete beharko dituzte.

### **13. artikulua. Hondakin espezifikoak**

Etxe pribatuetan eta zerbitzu jardueretan sortzen diren hondakin arriskutsuak unean-unean berariaz erabiltzen diren zerbitzuei eman beharko zaizkie.

Amiantodun hondakinak kendu eta kudeatzeko lanak horretarako baimena duten enpresek egin beharko dituzte.

Bertan behera utzitako ibilgailuen jabeek horiek herri bidetik kentzeko eskatuko zaie. Legez ezarritako epea igarotakoan, ibilgailua dena delako lekutik kentzeko eskaerari jaramonik egiten ez badiote, udalak horren berri emango dio Arabako Foru Aldundiari, hark kendu eta egoki kudea dezan.

## **IV. kapitulua. Ingurumenaren aurkako beste eragin batzuk**

### **14. artikulua. Materia, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuak biltegitratzea**

Arriskuren bat (kaltegarritasuna, toxikotasuna, kartzinogenizitatea, korrosibitatea, sukoitasuna, leherkortasuna eta abar) sor dezaketen substantzia, produktu edo hondakinak biltegitratzeari dagokionez, egun indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera:

– Berariaz debekatzen da horiek biltegitratzea, baita ontzietan edo andeletan ere, honako kasu hauetan:

Lurzoru naturalaren gainean edo, udal teknikarien iritzira, iragazgaiztasun nahikoa bermatzen ez duten zolaten gainean, azkenen ezaugarriak aintzat hartuta.

Aire zabalean, estalkirik gabe, baldin eta udal teknikariek hori egin ahal izateko aldeko txosten arrazoitua egiten ez badute.

– Balizko ihesak edo isuriak geldiarazteko ontziak, erretiluak edo bestelako euskarriak eduki beharko dira, bereziki, ihes-isuriak lurzoru naturaleko eremuetara edo saneamenduko kutxatiletara irits ez daitezen.

– Organo eskudunaren aurrean legez tatu direla egiaztatzen duten agiriak gordeta eduki beharko dira, hala badagokio, indarrean dagoen araudi aplikagarriari jarraiki.

### **15. artikulua. Ingurunea zaintzea**

Berdeguniak, atsedenlekuak, landa bideak, zuhaitzi publikoak eta antzeko beste ingurune batzuk erabiltzean, flora, fauna, uretako ingurumena eta beste edozein habitat erabat errespetatuko dira.

Esandako eremuetan, berariaz debekatuta daude honako ekintza hauek:

- Sua piztea baimendutako lekuetatik eta datetatik at.
- Kanpatzea.
- Ibilgailuak edo ziklomotorrak erabiliz zirkulatzea edo aparkatzea zirkulatu edo aparkatu ezin den lekuetan eta/edo baimendutako datetatik kanpo.
- Ibilgailuak edo ziklomotorrak konpontzea edo garbitzeko nahiz mantentzeko lanak egitea.
- Publizitatea jartzea aldez aurreko baimenik gabe.
- Faunaren lasaitasuna asaldatzen duten zaratak egitea.

- Animaliei eragozpenak eragitea.
  - Hegaztiak, arrainak eta gainerako animaliak hiltzea, ehizatzea, arrantzatzea edo kaltetzea, berariazko baimenik izan ezik.
  - Edozein animalia espezie abandonatzea edo ingurunean nahita sartzea.
  - Landaredia edozein modutan manipulatzeko edo suntsitzea, horretarako berariazko baimenik gabe zuhaitzak moztu edo kimatzea, zuhaitzak eta zuhaixkak astindu edo zatitzea, azalak marrastu edo markak egitea, azaletan iltzeak jostea eta abar. Gainera, zuhaitz bereziak badira edo tokiko intereseko katalogatutakoak, udalaren berariazko baimena beharko da horren etorkizunean eragina izan dezakeen edozein jarduerarako egiteko.
  - Edozein motatako objektu, substantzia edo jariakin botatzea edozein ur-eremutan.
  - Ereku horietako baldintza ekologikoak aldarazten dituzten produktu kimikoak erabiltzea edo isurketak egitea.
  - Hondakinak adierazitako lekuetatik kanpo uztea.
  - Pertsonen eragozpenak edo istripuak eta ingurumenari nahiz hiriko altzariei kalteak edo narriatzeak eragin ahal dizkieten jolasak, kirolak edo bestelako jolas jarduerak egitea, berariazko baimenik izan ezan.
- Ingurunean atzemandako edozein eragine berri jakinaraziko zaio udalari, hala nola hondakinak behar ez bezala botatzea, ura kutsatzea edo espezie inbaditzaileak aurkitzea (adibidez, Cortaderia selloana edo Panpako lezka).
- Sua piztuz gero, jolas helburuetarako nahiz sastrakak erretzeko, indarrean dagoen araudia eta aplikatu beharreko gomendioak bete beharko ditu.

## II. TITULUA. INGURUMEN ERAGINA DUTEN JARDUERAK

### I. kapitulua. Eduki orokorrak

#### **16. artikulua. Araubide aplikagarriak eta aurretzeko kontsultak**

Ingurumen eragina duten jardueren udal izapidetzea udalez gaindiko indarreko araudiak erregulatzen dituen araubideen eta baldintzen arabera egingo da, eta eragina izango du, bai instalazioan, bai jardueren aldaketan, handitzean, titulartasunaren aldaketan edo jarduerari uztean.

Udal izapidetzea hasi aurretik, ingurumen eragina duten jarduerak aurretzeko informazio kontsultak egin ahal izango dizkiote udalari, besteak beste, honako alderdi hauei buruz: aplikatu beharreko araubidea; araubide horren arabera eska daitezkeen baldintza administratibo eta teknikoak; lurzati baten lurzorua kalitatea eta abar.

Ingurumen eragina duen jardueraren baten udal tramitazioa hasteko, ordenantza honen I. eranskinean ageri den izapidetzearen araubide aplikagarria justifikatzeko inprimakia beteta aurkeztu beharko da.

#### **17. artikulua. Erantzukizunak**

Instalazioen titularrek beren jarduketan erantzukizuna izango dute, bereziki, ordenantza honetan jasotako manuak ez betetzeari dagokionez, eta haiek sinatutako dokumentuetan jasotako datuen egiazkotasunaren erantzule izango dira.

Proiektuak idazten eta ziurtagiriak ematen dituzten teknikariak izango dira haiek sinaturiko dokumentuetan ageri diren datuen egiazkotasunaren erantzule.

Udalaren zerbitzu teknikoek ingurumen, industria, osasun edo segurtasun araudia betetzen dela zainduko dute, legearen arabera eta beren jarduketan proportzionaltasun egokiari eutsita.

Indarrean dagoen ingurumen, industria, osasun edo segurtasun araudia hausten duten jokabideak antzemanaz gero, aplikatu beharreko araudian xedatutakoa ez betetzeagatik udalak ezar ditzakeen zehapenei kalterik egin gabe, gertaera zein den, organo eskudun egokiari jakinaraziko zaio, hark egokitzen jotzen dituen neurriak har ditzan.

Udalak erakunde publiko eta pribatuaren laguntza eskatu ahalko du udal agintaritzaren beharrezkoa ez duten eginkizun guztiak egikaritzeko.

II. kapitulua. Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazio araubidea

### **18. artikulua. Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazio araubidea**

Aurretiazko komunikazioaren araubideari loturik dauden eta ingurumen eragina duten jarduerak komunikazio hori formalizatu beharko dute jarduera instalatzeko lanak amaitu ondoren eta hirigintza, ingurumen, industria, osasun edo bestelako arloetan aplikatzen diren baimen, lizentzia eta gaikuntza titulu guztiak dituztenean, betiere jarduera garatzen hasi aurretik.

### **19. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak**

Aurretiazko komunikazioa formalizatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa, gutxienez, honako hau izango da, eta aplikagarria den udalez gaindiko araudiak ezartzen duen beste edozein agiri gehituko zaio:

– Aplikatu beharreko izapidetze araubidea justifikatzeko inprimakia, ordenantza honen I. eranskinean jasotakoaren arabera, behar bezala beteta eta teknikari eskudunak sinatuta.

– Ingurumenean eragina duen jarduera hasteko aurretiazko komunikazioaren inprimaki ofiziala, ordenantza honen II. eranskinean jasotakoaren arabera, behar bezala beteta, data jarrita eta jardueraren arduradunak sinatuta.

– Jardueraren aurretiazko komunikazioa sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Okupatu nahi duen establezimenduari dagokionez, dena delako jarduerari jarduera ekonomikoen erroldan alta eman zaiola egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Jardueraren proiektua edo memoria, teknikari eskudunak sinatuta, gutxienez, honako eduki hauek jasota:

- Garatu beharreko jarduera motaren deskribapena, jarduera berria den edo jarduera zabaldua den, lekuz aldatu den, eraberritu den edo lehendik dagoen jarduera baten legeztatzea den zehazturik.

- Ingurumen ebaluazioaren arloan indarrean dagoen araudiaren eragin mailaren azterketa.

- Aldameneko lokal edo instalazioen hirigintza bateragarritasunaren eta erabileren justifikazioa.

- Ekoizpen prozesuko eremu, biltegiei, bulegoei, komunei, aldagelei eta kanpoko zabaltzei doazkien eraikinen deskribapena eta azalera osoaren nahiz partzialen banakapena (azalera erabilgarriak eta eraikiak).

- Kokalekuan garatu beharreko prozesu eta eragiketa guztien deskribapen zehatza, honako eragiketa osagarri hauek aintzat hartuta: mantentze lanak, ekipoen eta instalazioen garbiketa, ibilgailuen garbiketa eta beste.

- Ekoizpen prozesuan aurreikusi diren eraginkortasun ekologikoko neurriak.

- Aurreikusi diren ingurumen kudeaketako sistemak.

- Aurreikusi diren langileen kopurua eta funtzionamendu ordutegia.

- Langileak lanpostura iristeko aurreikusi diren mugikortasun eraginkorreko neurriak.

- Kokalekuan lekutu behar diren kontsumo elektrikodun ekipo eta instalazio bakoitzaren deskribapena eta haiei lotutako potentzia elektrikoa.
- Aurreikusi diren energia eraginkortasuneko neurriak.
- Kokalekuan garatu beharreko edozein prozesu eta eragiketa garatzeko behar den materia edo produktu bakoitzaren izaera, aurreikusi den urteko kantitatea, biltegiratu beharreko gehieneko kopurua, bilgarri mota (materiala, tamaina eta abar) eta biltegiratzeko modua (barrualdean edo kanpoaldean, estalpean edo aire zabalean; atxikipen ontzia eta abar), bai eta fabrikatutako azken produktuena ere.
- Aurreikusi diren erosketa pribatuko neurri berdeak: ekoetiketatutako produktuak, material birziklatuen osaera handia duten produktuak, 0 kilometroko produktuak...
- Substantzia eta produktu kimikoei dagokienez:
  - Segurtasun datuen fitxa eguneratua, produktua fabrikatzen duen enpresak emana.
  - Produktu kimikoak biltegiratzeaz den bezainbatean, indarrean dagoen araudiaren aplikazio mailaren azterketa, arrisku adierazpenen (H esaldiak), biltegiratu beharreko gehieneko kantidaden eta abarren arabera.
  - Larrialdi egoeren aurrean, autobabesari buruz indarrean dagoen araudiaren aplikazio mailaren azterketa, substantzia kimikoak tartean diren istripu larriak prebenitzeari eta antzeko beste arau juridiko batzuei dagokienez.
- Erregai likidoen biltegiratzearen deskribapena (orga edo ibilgailuetarako gasolioa, berokuntzako erregaia eta abar) eta indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.
- Presio aparatuen deskribapena (konpresoreak, galdarak...) eta indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.
- Instalazio elektrikoaren deskribapena (transformazio-zentroak, behe tentsioko zentroak eta abar) eta indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.
- Suteen aurka babesteko instalazioen deskribapena eta indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa (establezimendu mota, sektorizazioa, su kargaren dentsitatea, berezko arrisku maila, babes pasiboa, babes aktiboa eta beste).
- Beste industria-instalazio batzuen deskribapena (gas instalazioak, hotz instalazioak, ongi-zate instalazioak, jasogailuak, instalazio erradioaktiboak eta abar) eta indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.
- Osasun arloan indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.
- Legionelosiaren kontrolaren arloan indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.
- Airearen kutsa dezaketen jardueren izaera eta kodea, indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera, kokalekuan gara daitezkeenak.
- Konposatu organiko hegazkorren arloan indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.
- Aurreikusi diren aireztapen (naturaleko edo behartuko) sistemen eta isuri atmosferikoak xurgatzeko edo arazteko sistemen deskribapena.
- Industriako hondakin urak eta ur beltzak sortzeko iturrien identifikazioa, aurreikusi den tratamendu sistemen deskribapena (jalkitze edo dekantazio tanga, hidrokarbuero bereizgailua...) eta ur fluxu bakoitzaren (industriako urak, ur beltzak, euri urak) helmugaren (ibilgua, kolektorea) deskribapena.
- Ontziak merkatuan jarriz gero, ontzien eta ontzi hondakinen arloan indarrean dagoen araudiaren betetze mailaren azterketa.



- Hondakinen sorrera prebenitzeko aurreikusi diren neurriak.
  - Sortzen diren hondakin arriskutsuen (garatutako prozesuei atxikitako hondakin espezifikoak, gai arriskutsuz kutsatutako xurgatzaileak, substantzia arriskutsuak eduki dituzten ontziak, aerosolak, olioak, pinturak, disolbatzaileak, fluoreszenteak...) eta ez-arriskutsuen (papera, kartoia, hondakin plastikoak, hondakin metalikoak, paletak, eta zur, beira eta pneumatiko hondakinak...) izaera, aurreikusitako urteko kantitatea, biltegitratzeko gehieneko kantitatea, ontzi mota (materiala, tamaina...), biltegitratzeko modua (barrualdean edo kanpoaldean, estalpean edo aire zabalean; atxikipen ontzia...) eta aurreikusi den kudeaketa (tratamendu mota, kudeatzaile baimendua...). Ildo horretan, lurzoru industrialean lekutatutako jardueren beren gain hartu beharko dute etxeko sorkuntzari egotzi ezin zaion edozein hondakin, izaerari eta kantitateari dagokienez.
  - Hondakinen hierarkia aintzat hartuta, kudeaketa aukera desiragarriagoa aplikatzeko ezintasunaren justifikazioa: prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, beste balorizazio mota batzuk (energetikoa barne) eta ezabatzea.
  - Zaratari buruzko justifikazio azterketa, gutxieneko eduki hau duela, nahiz eta horren irismena eta zehaztasuna udalak kasuan-kasuan eskatzen duenaren arabera egokitu ahalko den:
    - Zarata atera edo bibrazioa sor dezaketen iturrien identifikazioa eta deskribapena.
    - Balizko zarata edo bibrazio iturriak dauden lokalaren deskribapena eta kokapena, horien eraginpean egon daitezkeen etxebizitzak edo lokalak kontuan hartuta.
    - Ebaluazio irizpide aplikagarriak, harrerako eremu sentikorren eta jarduera motaren arabera.
    - Eragin akustikoaren zenbatespena.
    - Aplikatu daitezkeen muga balioen identifikazioa.
    - Aurreko datuen arabera, transmisioa arintzeko beharrezko balorazioa.
    - Aurreikusi diren neurri zuzentzaileak.
  - Udalak zaratatsutat jotzen dituen jardueren gogozkiela, modelizazio akustikoa.
  - Kokalekuan aldeztu diren jardueren izaera, jarduera horien lurzoruaren kutsatzeko izan duten kutsatze ahalmena eta lurzoruaren kalitatearen arloan aplikatzen den prozedura mota.
  - Instalatzen den jarduerak lurzoruaren kutsatzeko arriskuaren zehaztapena, eta, hala bada, kutsatzeko ahalmenaren norainokoa.
  - Ingurumenean edo pertsonen osasunean eragina izan dezakeen jardueraren beste edozein alderdiren deskribapena.
    - Planoak: kokapena (1:5000 eskala edo antzekoa); kokalekua (mugakideak adierazita, 1:500 eskala edo antzekoa); makinen eta instalazioen ezarpena; gai edo produktu kimikoen edo hondakinen biltegitratzea; industriako uren, ur beltzen edo euri uren sareak (hustubideak, kutxatila, arazketa sistemak eta isurketa guneak adierazita); atmosferara isurtzeko guneak edo aireztatzeko guneak; suteen aurkako babesak (babes aktiboak eta pasiboak, ebakuazio ibilbideak eta abar); establezimenduaren irisgarritasun baldintzak (sarbide publikoak izanez gero).
    - Altxaeren eta sekzioen planoak (1:100 eskala edo antzekoa), jarduera behar bezala ulertzen dela bermatzeko.
      - Teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiria, dena delako jarduera proiektuan edo jardueraren memorian deskribatutakoarekin bat datorrela egiaztatzen duena, eta ingurumen, industria, osasun eta segurtasun araudiak eta aplikagarria den sektoreko beste edozein araudi betetzen duela ziurtatzen duena.

— Proiektua edo jardueraren memoria sinatu duen teknikari eskudunaren gaitasuna egiaztatzen duen prestakuntza ziurtagiria edo elkargokidearen ziurtagiria, eta aplikatzekoa den araudia betetzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

— Aplikatzekoa den araudia benetan betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa, kasuan kasukoa:

- Ingurumen eraginaren adierazpena edo ingurumen eraginaren txostena, ingurumen ebaluazioaren arloko araudia aplikatu behar bada.

- Industria eta segurtasun instalazio bakoitzaren sarrera erregistroa, organo eskudunaren aurrean: suteen aurkako babesak; goi tentsioko edo behe tentsioko instalazio elektrikoak; prodktu kimikoen biltegitratzea; erregaien biltegitratzea; presio aparatua (konpresoreak, galdarak); gas naturalaren hornidura eta abar.

- Instalazioaren edo mantentze lanen erregistroa eta suteen aurka babesteko instalazio eta ekipoen indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera galdagarriak diren aldizkako ikuskapen eta probak egunean dituztela egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa.

- Autobabes planaren sarrera erregistroa, organo eskudunaren aurrean izapidetuta, eta galdagarria den gainerako dokumentazioa, hala badagokio, larrialdi egoerei lotutako babesaren arloan eta istripu larrien prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Aplikatzekoa den osasun araudia eraginkortasunez betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Isuri atmosferikoen esparruan aplikatu beharreko araudia eraginkortasunez betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa, indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Hondakin urak ibilgura edo kolektorera isurtzeko baimena, Ur Agentziak edo kolektorea kudeatzen duen erakundeak emanda, hurrenez hurren.

- Organo eskudunaren aurreko sarrera erregistroa, hondakin arriskutsuen ekoizlearen komunikazioa eta hondakin ez-arriskutsuen ekoizlearen komunikazioa, indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Hondakinen hierarkiaren arabera, kudeaketa aukera desiragarriagorik aplikatzeko ezintasuna justifikatzen duen egiaztatzea: prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, beste balorizazio mota batzuk (energetikoa barne) eta ezabaketa.

- Jardueraren zaratari buruzko txostena; bertan, egindako neurketen emaitzak jasoko dira eta eskatutako mugak betetzen diren ala betetzen ez diren arrazoituko da, jardueraren izaeratik bidezkoa ez dela justifikatu badaiteke izan ezik. Udalaren zerbitzu teknikoek azterketa akustikoa aurkezteko eskatzen dutenean, azterketa hori sinatzen dutenek gaikuntza tekniko egokia izan beharko dute, fidagarritasuna eta emaitzak bermatu ahal izateko.

- Kokalekuan alde zuzenetik garatu diren jardueretatik baten bat lurzorua kutsagarria izan daitekeelako susmorik badago, autonomia erkidegoko ingurumen organoaren aurrean lurzorua kalitatearen arloan indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera izapidetuta burutu dela erakusten duen dokumentazioa.

- Instalatzen den jarduera lurzorua kutsa dezakeen jarduerat hartzen bada, lurzorua egoerari buruzko txostenaren sarrera erregistroa, organo eskudunaren aurrean izapidetuta, indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera.

- Hartutako eraginkortasun energetikoko neurrien justifikazioa, behintzat, jasagarritasun energetikoa arloan indarrean dagoen araudia aplikatzearen zioz nahitaez bete beharrekoak direnak.

- Hartutako ingurumen kudeaketako sistemen justifikazioa, proiektuan edo jardueraren memorian adierazitakoaren arabera.

- Proiektuan edo jardueraren memorian adierazitakoaren arabera hartutako erosketa pribatu berdearen neurrien justifikazioa (ekoetiketatutako produktuak, material birziklatuen osaera handia duten produktuak, 0 kilometroko produktuak...).

- Mugikortasun eraginkorraren arloan hartutako neurrien justifikazioa, plantillako langileak lanpostura iristea errazteko, proiektuan edo jardueraren memorian adierazitakoaren arabera, gutxienez jasangarritasun energetikoaren arloan indarrean dagoen araudia aplikatzearen zioz nahitaez bete beharrekoak direnean.

- Ingurumenari, industriari, osasunari eta segurtasunari buruzko araudi aplikagarria betetzen dela justifikatzen duen beste edozein agiri, ordenantza honetan araututako alderdi espezifikoak barne.

### III. kapitulua. Jarduera sailkatuaren lizentziaren araubidea

#### **20. artikulua. Jarduera sailkatuaren lizentziaren eskabidea formalizatzea**

Ingurumen eragina duten eta jarduera lizentziaren araubideari loturik dauden jarduerak jarduera lizentziaren eskabidea formalizatu beharko dute kokalekuan edozein obra edo jarduera egin aurretik.

#### **21. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak**

Jardueraren lizentziaren eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa, gutxienez, honako hau izango da, eta aplikagarria den udalez gaindiko araudiak ezartzen duen beste edozein agiri gehituko zaio:

- Aplikatu beharreko izapidetze araubidea justifikatzeko inprimakia, ordenantza honen I. eranskinean jasotakoaren arabera, behar bezala beteta eta teknikari eskudunak sinatuta.

- Jardueraren lizentzia eskatzeko inprimaki ofiziala, ordenantza honen III. eranskinean jasotakoaren arabera, behar bezala beteta, data jarrita eta jardueraren arduradunak sinatuta.

- Jardueraren eskatzailearen ordezkari ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Jardueraren proiektua, teknikari eskudunak sinatuta, ordenantza honen 19. artikulua adierazitako irismenarekin.

- Jardueraren proiektua sinatu duen teknikari eskudunaren gaitasuna egiaztatzen duen prestakuntza ziurtagiria edo elkargokidearen ziurtagiria.

- Ingurumen eraginaren azterketa edo ingurumen dokumentua, ingurumen ebaluazioaren arloan indarrean dagoen araudia aplikagarria bada eta, hala badagokio, aplikatzea den prozeduraren arabera.

- Instalatzen den jarduera lurzorua kutsa dezakeen jardueratzat jotzen bada, lurzorua egoerari buruzko txostena, indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera.

#### **22. artikulua. Jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak justifikatzea**

Jarduera kokalekuan instalatzeko lanak amaitu ondoren, eta hirigintza, ingurumen, industria, osasun edo bestelako arloetan aplikagarri zaizkion baimen, lizentzia eta gaikuntza titulu guztiak dituenean, betiere jarduera hasi aurretik, jarduera hasteko alde aurreko jakinarazpena formalizatu beharko da. Horretarako, gutxienez, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, eta aplikagarria den udalez gaindiko araudiak ezartzen duen beste edozein agiri erantsiko zaio:

- Ingurumenean eragina duen jarduera hasteko aurretiazko komunikazioaren inprimaki ofiziala, ordenantza honen II. eranskinean jasotakoaren arabera, behar bezala beteta, data jarrita eta jardueraren arduradunak sinatuta.

- Jardueraren aurretiazko komunikazioa sinatzen duen pertsonaren ordezkari ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Okupatu nahi duen establezimenduari dagokionez, dena delako jarduerari jarduera ekonomikoen eroldan alta eman zaiola egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiria, dena delako jardueraren proiektuan edo jardueraren memorian deskribatutakoarekin bat datorrela egiaztatzen duena, eta ingurumen, industria, osasun eta segurtasun araudiak eta aplikagarria den sektoreko beste edozein araudi betetzen duela ziurtatzen duena.

– Aplikatzekoa den araudia betetzen dela egiaztatzeko ziurtagiria sinatu duen teknikari eskudunaren gaitasuna egiaztatzen duen prestakuntza ziurtagiria edo elkargokidearen ziurtagiria.

– Aplikagarria den araudia eraginkortasunez betetzen dela egiaztatzen duten agiriak, ordenantza honen 19. artikulua adierazitako irismenarekin.

#### IV. kapitulua. Beste jarduera araubide batzuk

##### **23. artikulua. Beste jarduera araubide batzuk**

Aplikagarri den araudiaren arabera, aurretiazko komunikazioz eta jardueraren lizentziaz bestelako araubideek ingurumenean eragina duten jarduerak indarreko araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Ordenantza hau onartu den unean, indarrean dagoen legezko arau aplikagarria Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea da. Aurretiazko komunikazioaren eta jardueraren lizentziaren araubideez gain, lege horrek ingurumen baimen bateratuaren eta ingurumen baimen bakarraren araubideak jasotzen eta arautzen ditu. Bi araubide horiek izapidetzeko organo eskuduna autonomia erkidegoko ingurumen organoa da.

##### **24. artikulua. Funtzionamenduaren hasieraren edo irekieraren komunikazioa formalizatzeko aurkeztu beharreko agiriak**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 48. artikulua arabera, ingurumen baimen bateratua edo ingurumen baimen bakarra behar duen jarduera bat hasi aurretik, beharrezkoa izango da martxan jartzeko edo irekitzeko komunikazioa aurkeztea Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoaren aurrean eta instalazioa dagoen udalaren aurrean.

Komunikazio horretaz denaz bezainbatean, aipatutako legean eta lege hori garatzeko onartzen diren ondoko lege arauetan ezarritako irismen eta edukiari kalterik egin gabe, udal mailan, gutxienez, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Aplikatu beharreko izapidetze araubidea justifikatzeko inprimakia, ordenantza honen I. eranskinean jasotakoaren arabera, behar bezala beteta eta teknikari eskudunak sinatuta.

– Ingurumenean eragina duen jarduera hasteko aurretiazko komunikazioaren inprimaki ofiziala, ordenantza honen II. eranskinean jasotakoaren arabera, behar bezala beteta, data jarrita eta jardueraren arduradunak sinatuta.

– Jardueraren aurretiazko komunikazioa sinatzen duen pertsonaren ordezkari ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Okupatu nahi duen establezimenduari dagokionez, dena delako jarduerari jarduera ekonomikoen eroldan alta eman zaiola egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Teknikari eskudun batek sinatutako ziurtagiria, baimenaren xede den jarduera motaren arabera, instalazioak onartutako proiektuarekin bat datozela eta ingurumen baimen bateratuan edo ingurumen baimen bakarrean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena.

– Proiektua edo jardueraren memoria sinatu duen teknikari eskudunaren gaitasuna egiaztatzen duen prestakuntza ziurtagiria edo elkargokidearen ziurtagiria, eta aplikatzekoa den araudia betetzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

– Jarduera dela eta, ingurumen arloan eta, organo eskudun egokiaren aurrean izapidetu diren baimenak, lizentziak eta gaikuntza tituluak.

– Industria eta osasun esparruetan aplikagarria den araudia eraginkortasunez betetzen dela egiaztatzen duten agiriak, ordenantza honen 19. artikulua adierazitako irismenarekin.

Udalak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri eskatu ahal izango du jarduera garatzeko baldintzak eta indarrean dagoen araudiaren aplikazio eta betetze maila erabat ezagutzeko.

V. kapitulua. Suteen aurkako babesaren arloko espezifikotasunak

### **25. artikulua. Suteen aurkako babesaren industriako establezimenduetan**

Eusko Jaurlaritzan industria arloko eskumena duen sailaren irizpidea izango da nagusituko dena establezimendu batek abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua, industria establezimenduetako suteen aurkako segurtasun araudia onartzen duena, edo haren ordezko beste lege arauren bat bete behar duen ala ez zehazterakoan.

Hala eta guztiz ere, sail horrek irizpenik eman ezean, udalak ulertuko du industria lurzoruan kokatu den establezimendu batek aipatutako araudia bete behar duela jardueraren lizentzia eskatzen duenean edo alde zuzeneko komunikazioa aurkezten duenean, eta interesdunak ezin izango du alegatu bere jarduera lehenago modu klandestinoan edo irregularrean egin duenik. Irizpide horri eutsiko zaio, interesdunak Sail eskudunak bestelakoa ulertzen duela adierazten duten probak aurkezten ez dituen bitartean.

Industria establezimenduetako suteen aurkako segurtasun araudia onesten duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua indarrean hasi aurretik zeuden industria establezimenduei dagokienez:

- Udalarena da establezimenduetako segurtasuna kontrolatzeko eskumena.
- Jardueraren lizentzia jasotako baldintzak bete behar dira, bai eta jardueraren proiektuan eta haren aldaketetan adierazitakoak ere.
- Hala dagokionean, NBE CPI-96 araua erabiliko da, prestigiozko araua den aldetik.
- Instalazioek eta sua itzaltzeko ekipoei ikuskapenak eta aldizkako azterketak egunean dituztela erakutsi behar dira. Horretarako, mantentze lanen erregistroak eskatuko dira (eta hala badagokio, instalazio erregistroak).

### **26. artikulua. Suteen aurkako babesaren nekazaritza eta abeltzaintzako establezimenduetan**

Nekazaritzako eta abeltzaintzako establezimenduei eta antzekoek suteen aurkako babesaren arloan aplikatu beharreko araudi espezifikorik ez duten bitartean, udal agintaritzari dagokio, besterik adierazi ezean, suteen aurkako babesari buruzko eskumena.

Instalazio berriko jarduerak suteen aurkako babesari buruzko azterketa jaso behar dute jardueraren proiektuan edo ingurumen memorian. Azterketa horrek, sinatzen duen teknikari eskudunaren erantzukizunari loturik, instalazioen, bertako okupatzaileen eta inguruko establezimendu eta elementu naturalen segurtasuna bermatuko du.

Udalaren zerbitzu teknikoek unean-unean indarrean dagoen industria establezimenduei aplikatu beharreko araudia oinarritzat hartuta balioetsiko dute dokumentazioa, onartutako arau gisa; nolahi ere, teknikari eskudunak aldeztutako eta dagokion elkargo ofizialean behar bezala ikus-onetsitako aukerako neurrien justifikazioak onartu ahal dira.

Jardueraren proiektuan eta, hala badagokio, jardueraren lizentzia ezarritako baldintzak bete daitezela eskatuko da.

**27. artikulua. Suteen aurkako babesaren azken araudia indarrean hasi aurreko establezimenduei buruzko aldaketak**

Eusko Jaurlaritzako arloko sail eskudunaren irizpenaren nagusitasunari kalterik egin gabe, suteen aurkako babesaren azken araudia indarrean sartu baino lehen zegoen establezimendu batek aldaketak izaten dituenean, araudi berrira egokitu beharko da honako kasu hauetan:

- Ekoizpenaren erabilera aldatzen denean, instalazioak oso-osorik egokitu beharko dira.
- Erabilerari eusten dioten eraberritze lanak egiten direnean, eraberritze edo handitze lanek aldatutako eraikuntza elementuei eta suteen aurkako babes instalazioek araudi berria bete beharko dute, eskakizun horren ondorioz, segurtasun baldintzak araudi berrira hobeto egokitzen badira lehen indarrean zegoen araudian ezarritakoen aldean.
- Eraberritzeak ebakuazio elementuen okupazioa edo banaketa aldatzen badu, araudi berria elementu horiei guztiei aplikatu beharko zaie.
- Eraberritzeak suteetatik babesteko instalazioen euskarri izan behar duten eraikuntza elementuei eragiten badie, edo elementu horien osagaiak igarotzen diren eremuari, instalazio horiek araudi berrian ezarritako manuetara egokitu behar dira.

Edonola ere, erabilera aldatzen ez duten eraberritze lanek ezin izango dituzte apaldu lehendik zeuden segurtasun baldintzak.

**VI. kapitulua. Isuri atmosferikoen arloko espezifikotasunak****28. artikulua. Isuri atmosferikoei buruzko gogoeta orokorrak**

Oro har, ibilgailuen zirkulazioz bestelako eragiketak, baldin eta atmosferan hautsa, kea, lurruna, gasak edo beste edozein motatako substantziak askatzen badituzte, materialak biltegitzeko, kargatzeko eta deskargatzeko eragiketak ere aintzat hartuta:

– Lokal edo establezimendu egokituetan egin beharko dira, kanporako isuririk gerta ez dadin, gunek konfinatuko instalazioetan egiten direnean izan ezik, indarrean dagoen araudiaren arabera aplika daitezkeen isurtzearen muga-balioak betetzeko beharrezkoak diren arazketa-sistemetatik igaro eta gero. Kasu horietan, berariaz debekatuta dago aireztapen naturala edo behartua erabiltzea, laginak hartzeko behar bezala egokitutako gunek konfinaturik gabe.

– Soilik kanpoaldean egin ahalko dira, baldin eta, udalaren zerbitzu teknikoaren iritziz, sustatzaileak behar bezala justifikatzen badu barrualdean ezin direla egin, eta enpresa espezializatu batek egindako azterketa espezifiko baten bidez justifikatzen bada isurtze eta immisio balioak bat datozela indarrean dagoen araudian ezarritako mugekin. Euriaren eta/edo haizearen ondorioz arrastaka joan daitezkeen materialak kanpoan biltegitzeko eragiketa baimenduei dagokienez:

- Metaketek altuera ezin izango da jardueraren inguruko hesiaren altuera baino garaiagoa izan.
- Metaketek aletegiak izan beharko dituzte, hau da, trenkaden bidez zedarriztatuta geratu beharko dute, aldeetako bat libre gera daitekeela zamaketa lanak errazteko.

Biltegitzearen garaierak ezin izango du eusteko elementu horien altuera gainditu.

- Ezingo dira ebakuazio hodiak eta tximiniak garbitu airea kanpora puztuz.

**29. artikulua. Isuri atmosferikoak ostalaritzako establezimenduetan eta antzekoetan**

Berariaz, elikagaiak prestatzeko eragiketak egiten dituzten ostalaritzako establezimenduek, hala nola tabernek, kafetegiek, jatetxeek eta antzeko beste batzuek, bai eta gasak, keak, lurrinak eta usainak sorrarazten dituzten artisau jarduerak eta elikagaigintzako produktuak fabrikatzeko jarduerak:

– Indarrean dagoen araudi aplikagarrian araututakoa betetzen duten ebakuazio hodiak izango dituzte, baina, salbuespen gisa eta organo eskudunak txosten loteslea egin eta gero, aukerako beste ebakuazio sistema batzuk baimendu ahal izango dira, honako inguruabar hauek kontuan hartuta:

- Tximinia jartzeak eragin ditzakeen egiturazko arazoak.
- Eraikin mota (katalogatua, historikoa eta abar).
- Jabeen erkidegoak tximinia ez baimentzea.
- Erabilitako sukaldeko ekipoak.
- Egokitzat jotzen den beste edozein irizpide.

– Eraginkortasun egiaztatuko iragazkiak instalatu beharko dituzte, eta fabrikatzaileak adierazitako aldizkako mantentze lanen edo aldaketei men egin beharko diete, baldin eta keak tximinietatik husteko prozedura, indarrean dagoen araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetan egin arren, gogaikarria bada usainak antzematen direlako edo zatikiak isurtzen direlako.

– Bide publikoan ezin izango dute elikagaiak prestatzeko gailu edo instalazio finko edo mugikorrik eduki, hala nola barbakoak, erretegiak, plantxak, parrillak eta abar, berariazko baimena izan ezean.

### **30. artikulua. Isuri atmosferikoak eraikuntza eta eraispn eragiketetan**

Eraikuntza edo eraispn obretan edo lur mugimenduan:

– Partikulen igorpena ahalik eta gehien murrizteko beharrezko neurriak hartuko dira, sakanabatzea saihestuz eta, nolnahi ere, mugakideei eragozpenak sortzea saihestuz.

– Obrako edukiontzia estaliko dira, olana edo antzeko bat erabili, lanez kanpoko ordutegian, bai eta zamalanetan eta garraio eragiketetan ere.

### **31. artikulua. Errekuntza eragiketak**

Errekuntza eragiketei dagokienez:

– Oro har, debekatuta daude biltzeko, arazteko, eramateko eta kanporatzeko behar diren gailuak dituzten ekipo edo instalazio egokietan egiten ez diren errekuntza guztiak.

– Ezin izango da inolako hondakinik erre (etxeakoak, merkataritzakoak, industriakoak, nekazaritza eta abeltzaintzakoak edo beste edozein jatorritakoak) organo eskudunak alde aurretik baimenik ez badu ematen.

– Berariaz debekatuta dago arotzeria lanetatik, altzari fabriketatik, palet, zutoin, trabes, hesi, taula aglomeratuetatik eta, oro har, tratamendu kimikoak izan dituzten edo tratamendu horien hondarrak izan ditzaketen edozein zuretatik datozen zur hondakinak erretzea.

## VII. kapitulua. Zarata eta bibrazioen arloko espezifikotasunak

### **32. artikulua. Zaratari eta bibrazioei buruzko gogoeta orokorrak**

Udalaren zerbitzu teknikoan iritzira, ingurumen eragina duen jarduera baten sustatzaileari zaratari buruzko txostena aurkezteko eskatu ahalik zaio, jarduera hori edozein dela ere, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritako gehieneko mailak gaindi daitezkeelako zantzuak badaude, edo kexa edo salaketaren bat erregistratu bada.

### **33. artikulua. Eraikuntza eta eraispn eragiketei lotutako zarata eta bibrazioak**

Eraikinak edo azpiegiturak eraikitzeke, aldatzeko, konpontzeko edo eraisteko obretan eta lanetan, bai eta bide publikoan egiten direnetan ere:

– Ez da baimenduko nahitaezko homologaziorik ez duen makinari erabiltzea, ezta funtzionamendu baldintza egokietan erabiltzen ez denik ere.

– Erabilitako sistema edo ekipo osagarriek, ekipo elektrogenoak barne, teknikoki zaratarik txikiena ateratzen dutenak izan beharko dute, eta erarik egokienean erabiliko dira kutsadura akustikoa saihesteko.

– Zarata sorraraz dezaketen aldi baterako lanak ezingo dira egin 22:00etatik 8:00etara, larunbatetan 15:00etatik aurrera eta jaiegun guztietan, udalak berariazko baimena eman ezean.

### **34. artikulua. Zarata eta bibrazioak bizitegi lurzoruan kokatutako ingurumen eragina duten jardueretan**

Bizitegi lurzoruan kokatzen diren eta ingurumen eragina duten jarduerak zarataren eta bibrazioen arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako ordu tarte bakoitzeko eskatzen dituen muga balioak bete beharko dituzte, eta salbuespenezko kasuetan, udalaren berariazko baimena eskatu ahal izango da. Udalak horretarako baimena ematen badu, alboko bizilagunei jakinaraziko die, behintzat, informazio oharrak atarrietan jarrita. Ohar horietan, ondoko informazioa jasoko da:

- Jardueraren sustatzaile fisiko edo juridikoaren nortasuna.
- Jarduketa gauzatuko duen eragilearen nortasuna.
- Baimendutako jarduketaren azalpen laburra.
- Baimenak aintzat hartzen dituen datak.
- Jarduketari buruzko kexak aurkezteko tokia eta modua.

Oro har aplikatu daitezkeen zarataren muga balioak gainditzen dituzten lanak egiteko baimena edozein unetan baliogabetu ahalko da, kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta.

Bibrazioak sorrarazten dituen elementu oro (ekipoa, makina, fluidoak edo elektrizitatea garraiatzeko hodia eta abar) instalatu beharko da haren funtzionamenduak igortzen duen bibrazioaren maila ahalik eta gehien murrizteko eta legez araututako gehieneko mugak inola ere ez gainditzeko beharrezko neurriak hartuta. Horretarako, beharrezkoa izanez gero, elementu elastiko bereizleak edo bibrazioen aurkako bankada independentez hornituko da. Nolanahi ere, multzoaren mantentze egokia egin beharko da, funtzionamendu orekatua bermatzeko xedez.

#### VIII. kapitulua. Ingurunea zaintzearen arloko espezifikotasunak

### **35. artikulua. Zuhaitzen eta berdeguneen babesa**

Obra baten garapenak berdeguneetan (lorategiak, soropilak, landaketak, zuhaitzak, zuhaitz txorokoak eta antzeko beste elementu batzuk) eta horien inguruetan eragin ditzakeen eraginak saihesteko dira. Horretarako, honako hauek eskatuko dira: ordena eta garbitasun egoera egokiari eustea, obra instalazioak txukunak izatea eta ibilgailuen aparkalekua eta zirkulazioa eta sor daitekeen zarata mugatzea, ezinbestekoa den gutxienez.

Obra bat hasi aurretik, lanen eragin eremutik edo ibilgailuen eta makinen zirkulaziotik edo kokapenetik 2 metro baino gutxiagora dauden landare edo altzari guztiak babesteko dira. Babes horiek obra amaitzean kenduko dira.

Berdeguneetako landareek edo ekipamenduek nahiz apaingarriek ezin izango dira obraren tresna osagarri gisa erabili, ezta euskarrien, itxituren, biltegien eta abarren funtzioak betetzeko baliatu ere. Guztia debekatuta dago horiek aprobetxatzea seinaleak jartzeko, sokei edo kableei eusteko, erremintak edo makinak lotzeko eta abarretarako.

Udalak aldeko txostena eman ezean, berdeguneak ezin izango dira erabili inguruan egiten diren obretako materialak, obra hondakinak, erremintak, makinak, ibilgailuak edo bestelako elementuak pilatzeko.

Obra baten garapenak inausketak egitea, sustraiak moztea, lurzorua maila aldatzea, ureztatze sisteman esku hartzea edo berdeguneetako landareen edo ekipamenduen gaineko jarduketa zuzenik egitea badakar, informazio hori udalari aurkeztu beharreko dokumentazioan jaso beharko da.

Ahal dela, zuhaitzen inguruko zangak landare atsedenen garaian egin beharko dira, hau da, abenduan, urtarrilean edo otsailean.



Zuloak edo zangak zuhaitz sail publikoetatik hurbil egiten direnean, hondeaketa ez da zuhaitzaren oinarrira hurbildu behar haren diametroaren distantzia halako sei baino laburrago, 1,20 metroko garaieran. Nolanahi ere, distantzia hori 0,7 metrotik gorakoa izango da beti. Arau hori betetzea ezinezkoa bada, udalari aurkeztu beharreko dokumentazioan, aukerako babes neurriak jaso beharko dira.

Obra amaituta dagoela eta alde zurretik ezarritako epearen barruan, obraren arduradunei eskatuko zaie berdegunea lanak hasi aurretik zegoen egoerara leheneratzeko, eta, hala badagokio, aldi baterako kendutako elementuak lehengoratzeko eta eragindako kalteak konpontzeko. In-guruabar jakin batzuetan, obrak dirauen artean, zaharberitze partzialak egitera behartu ahalko da sustatzailea.

Obrak hondeatzeko lanetan, 5 zentimetrotik gorako diametroa duten sustraiak ukitzen badira, sustraiok moztu beharko dira, ebaki garbiak eta leunak utzita, eta horren ondotik, merkatuan eskura daitekeen substantzia orbaintzaileren bat erabiliz margotuko dira. Gehienez ere, hiru eguneko epean estali beharko dira, hondeatzea egiten den egunetik zenbatzen hasita eta lur-rak zabalduaren bolumetria osoa estali beharko du, hondakinak eta nahasteak bazter utzita. Azkenik, ureztatu egingo da.

Berdegune publikoetako belar espezieen (soropilen) gainean zangak eta zuloak egiten direnean, eragindako eremua ahalik eta lasterren leheneratuko da, zotalak edo zopizarrak erabiliz, eta obraren egileek horien mantentzea egin beharko du, gutxienez, 2 hilabetez, obraren harrera egiten den arte. Soropilen gainean egindako zanga eta zuloen gainean, gutxienez, 30 zentimetroko labore lurrezko geruza botako da, eta zotalak edo zopizarrak geruza horren gainean jarriko dira.

IX. kapitulua. Beste ingurumen edo industria esparruetako espezifikotasunak

### **36. artikulua. Materia, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuak biltegitratzea**

Arriskuren bat (kaltegarritasuna, toxikotasuna, kartzinogenizitatea, korrosibitatea, sukoitasuna, leherkortasuna eta abar) sor dezaketen substantzia, produktu edo hondakinak biltegitratzeari dagokionez, egun indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera:

– Berariaz debekatuta dago biltegitratzea, baita ontzietan edo andeletan ere:

- Lurzoru naturalaren gainean edo, udal teknikarien iritzira, iragazgaitasun nahikoa bermatzen ez duten zolaten gainean, azkenen ezaugarriak aintzat hartuta.
- Aire zabalean, estalkirik gabe, baldin eta udal teknikariek hori egin ahal izateko aldeko txosten arrazoitua egiten ez badute.

– Balizko ihesak edo isuriak geldiarazteko ontziak, erretiluak edo bestelako euskarriak eduki beharko dira, bereziki, ihes-isuriak lurzoru naturaleko eremuetara edo saneamenduko kutxatiletara irits ez daitezen.

### **37. artikulua. Gorabeherak edo istripuak**

Ingurumenean eragina duten jarduerak direla eta, berehala jakinarazi beharko zaio udalari, bai eta aplikatzekoa den araudiaren arabera tartean dauden beste administrazio publikoei edo erakundeei ere, ingurumenean edo pertsonen osasunean eragin nabarmena izan dezakeen jardueraren funtzionamendu ohikoaren edo ezohikoaren ziozko edozein gertakariren berri.

X. kapitulua. Jarduera aldatzea, handitzea, titulartasuna eskualdatzea eta jarduerari uztea

### **38. artikulua. Jarduera aldatzea eta handitzea**

Gaikuntza titulua lehendik duten jardueren aldaketak eta zabaltzeak aldaketaren edo zabaltzearen izaerari loturiko araubidearen arabera izapidetuko dira, aplikagarria den udalez gaidiko araudiak horri buruzko irizpide espezifikoak xedatzen dituenean izan ezik.

**39. artikulua. Titulartasuna eskualdatu aurreko kontsulta**

Ingurumenean eragina duen jarduera baten titulartasunaren eskualdaketa izapidetu aurretik, eskurtazaileak kontsulta egin ahalko du udaletxean, honako hauek argitzeko:

– Eskuratutako jarduera behar bezala legeztatuta dagoen egiaztatzeko; izan ere, legeztaturik ez badago, eskurtazaileak hartuko du bere gain gaikuntza titulu egokia izapidetzeko erantzukizuna.

– Eskuratutako jarduera baimendutako proiektuarekin bat datorren egiaztatzeko; izan ere, edozein arrazoi dela medio, udalak etorkizunean jakingo balu aldaketaren bat gertatu dela gaikuntza titulua ahalbidetu zuen proiektuan jasotakoarekin erkatuta, titular berriari erregularizatzeko eskatuko dio.

– Udalak baimendutako jardueran egin nahi dituen aldaketen balorazioa eskatzeko; hala, udalak erabaki ahalko du aldaketa horiek, hala badagokio, gaikuntza titulu berririk izapidetu beharra eragiten duten.

**40. artikulua. Titulartasuna eskualdatzea**

Ingurumenean eragina duen jarduera baten titulartasuna eskualdatzen bada, aurretiazko komunikazioa egin beharko da, honako agiri hauen bidez formalizatuta:

– Ingurumenean eragina duen jardueraren titulartasuna eskualdatzeko inprimaki ofiziala, ordenantza honen IV. eranskinean jasotakoaren arabera.

– Jardueraren aurretiazko komunikazioa sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Gaikuntza titulua eskualdatzeko baimena ematen duen eskualdatzailearen adierazpena.

– Eskualdatzailearen adierazpena sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza ahalordea.

– Eskualdatu nahi den gaikuntza tituluaren kopia.

– Okupatu nahi duen establezimenduari dagokionez, dena delako jarduerari jarduera ekonomikoen eroldan alta eman zaiola egiaztatzen duen dokumentazioa.

– Udalak baimendutako jardueran egin nahi dituen aldaketen balorazioa eskatzeko; hala, udalak erabaki ahalko du aldaketa horiek, hala badagokio, gaikuntza titulu berririk izapidetu beharra eragiten duten.

**41. artikulua. Jarduerari uztea**

Ingurumenean eragina duen jarduera bat, zati batean, osorik, aldi baterako edo behin betiko, bertan behera uzten bada, aldeztu aurretik jakinarazi beharko da, eta agiri hauen bidez formalizatuko da:

– Ingurumenean eragina duen jardueraren titulartasuna eskualdatzeko inprimaki ofiziala, ordenantza honen IV. eranskinean jasotakoaren arabera.

– Aurretiazko komunikazioa sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza ahalmena egiaztatzen duten agiriak.

– Jarduerari uztea aldi baterakoa bada, hartu diren edo aurreikusitako diren neurrien deskribapena eta denborazko segida, edonolako kutsadura arriskurik saihesteko xedez.

– Jarduerari uztea behin betikoa bada:

• Bertan behera uzten diren prozeduren edo erabili gabe uzten diren instalazioen deskribapena.

• Industria arloan eskumena duen organoaren aurrean, bertan behera lagatzen diren instalazioei baja eman zaiela egiaztatzen duten agiriak.

- Isuri atmosferiko, hondakin, isuri eta lurzoruez denaz bezainbatean, jarduerari uzteak egin ditzakeen aldaketen zioz, ingurumen arloan eskumena daukan organoaren aurrean dokumentazio egokia izapidetu dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Jarduerari uzteak egin ditzakeen aldaketen zioz, osasun arloan eskumena daukan organoaren aurrean dokumentazio egokia izapidetu dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Jarduera osorik eta behin betiko uzten bada, behin betiko uzte partzialari loturik aurkeztu beharreko agiriez gain, jarduera ekonomikoaren eroldan baja eman zaiolako agiria ere aurkeztu beharko da.

Jardueraren bat sei hilabetez baino denbora luzeagoz eteten bada, udalak kasuan-kasuan balioetsi beharko duen arrazoi justifikaturen batengatik izan ezik, gaikuntza titulua iraungi egingo da eta, horren ondorioz, titulartasun aldaketa izapidetzeko aukera sortuko da.

XI. kapitulua. Gaikuntza tituluak izapidetzeko espedienteak amaitzea

#### **42. artikulua. Udal espedienteak amaitzea**

Ingurumenean eragina duten jarduerari aplikatu beharreko araubide bakoitzean, aurretiazko nahitaezko komunikazioa aurkezteak aukera ahalbidetzen du, une horretatik aurrera, jarduera benetan gauzatzeko, udalak, hari dagozkion eskumenean eremuan, egiaztapen, kontrol eta ikuskapen ahalmenak izateari kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, ingurumenean eragina duen jarduera baten instalazioari, aldaketari, handitzeari, titulartasun aldaketari edo uzteari aplikatu beharreko araubidea edozein dela ere, jarduera hasteko aurretiazko komunikazioa edo titulartasunaren aldaketari nahiz jarduerari uzteari buruzko aurretiazko komunikazioa aurkeztu ondotik, udalak kasuan-kasuan egokitzat jotzen duen egiaztapen dokumentala edo aurrez aurrekoa egingo du, eta beharrezkotzat jotzen dituen alderdiak zuzentzeko eskatuko du.

### **III. TITULUA. UDALA**

#### **I. kapitulua. Kontrola eta ikuskapena**

#### **43. artikulua. Eskumenak**

Udalari honako hauek dagozkio:

- Jardueraren lizentziaren araubideari eta aurretiazko komunikazio araubideari lotutako jarduerak egiaztatzea, zaintzea, ikuskatzea eta zehatzea; eginkizun horiek betetzeko foru aldundiaren laguntza teknikoa eskatu ahal du.

#### **44. artikulua. Egikaritzeko modua**

Kontrol eta ikuskapen lanak aplikagarria den udalez gaindiko araudiak ezarritakoari jarraiki egingo dira.

#### **II. kapitulua. Ingurumen informazioa eskuratzea**

#### **45. artikulua. Ingurumen informazioa zabaltzea**

Indarrean dagoen araudiari doazkion ingurumen informazioaren zabalkundearen arloko eskubide eta betebeharez gain, udalak urtero-urtero argitaratuko du, webgunearen gardentasunaren atalaren bidez, ekitaldian zehar ingurumenaren arloan gauzatutako zeregin nagusien zerrenda.

#### **46. artikulua. Ingurumen arloko parte hartzea**

Indarrean dagoen araudiari doazkion ingurumen parte hartzearen arloko eskubide eta betebeharez gain, udalak aukera emango du interesdunek eta, oro har, herritarrek kontsultak eta iradokizunak egin ditzaten udalaren webgunean ageri den herritarren postontziaren bidez.

**47. artikulua. Ekintza publikoa**

Indarrean dagoen araudiari doazkion ekintza publikoaren arloko eskubide eta betebeharez gain, udalak ahalbidetuko du edozein pertsona fisiko edo juridikok kexa egitea izan dezan ingurumen ordenantza honetan adierazitako atalei dagokienez, udalaren egoitza elektronikoaren bidez; horretarako, alta eman beharko da egoitza elektronikoan.

Kexa edo iradokizunik egin nahi duten pertsona fisikoek udaletxean bertan jaso dezakete arreta, eta horretarako, inprimaki bat jarriko da haien esku.

**III. kapitulua. Ingurumen hobekuntza bultzatzeko tresnak****48. artikulua. Erosketa publiko berdea eta kontratazioa**

Sektore publikoko kontratuei buruzko araudiak xedatutakoa betetzeari kalterik egin gabe, obra, zerbitzu eta horniduren kontratuetako administrazio baldintzen agirietan eta preskripzio tekniko partikularretan, udalak esleipen irizpideak, gauzatze baldintza bereziak eta erronkak lortzen laguntzen duten klausulak edo baldintzak jasoko ditu, hala nola berotegi efektuko gasen igorpenak murriztea; kontratua gauzatzeak eragindako ingurumen balioei eustea edo balio horiek hobetzea; uraren eta zuraren jatorriaren kudeaketa jasangarriagoa egitea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktuak birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera sustatzea; solteko produktuak, tokiko produktuak eta ekoizpen ekologikoa bultzatzea eta abar, betiere kontratuaren xedearekin lotuta badaude eta zuzenbide aplikagarriarekin bateragarriak badira.

Berariaz:

– Obrei dagokienez:

- Berrerabiltzeko prestatzeko prozesuei loturiko azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak, material birziklatuak edo materialak erabiltzeko gutxienezko ehunekoa 40koa izango da, justifikatutako arrazoi teknikoak direla eta, portzentaje hori murriztu behar denean izan ezik.

- Eraikinetan, obra zibiletan, urbanizazio obretan, estalduretan, inguratzailetan eta abarretan, honako hauek hartuko dira kontuan: diseinu eta etiketatze ekologikoko irizpideak; mantentze eta konponketa baldintzak; ingurumen eragina ahalik eta gehien apaltzea (hondakinak, isuri atmosferikoak, isurketak, zarata, eta abar), bai obra fasean, bai eragiketa fasean; eta abar.

- Hornidurei (bulegoko materiala, altzariak, ekipo elektronikoak eta abar) eta zerbitzuei dagokienez (kale garbiketa, udal instalazioak garbitzea, lorezaintza, mezularitza, argitalpenak, ekitaldiak antolatzea eta beste), honako hauek hartuko dira kontuan: diseinu eta etiketatze ekologikoko irizpideak; mantentze eta konponketa baldintzak; kontsumoak minimizatzea (lehengaiak, substantzia arriskutsuak, ura, energia eta abar); ingurumen eragina ahalik eta gehien apaltzea (hondakinak, isuri atmosferikoak, isurketak, zarata, eta abar); joan-etorriak optimizatzea; eta abar.

Kontratuak amaitzean, kasuan-kasuan ezarritako baldintzak eta klausulen betetze maila justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Kontratazioen baldintza agirietan, kontrol mekanismo egokiak ezarriko dira, eta, hala badagokio, horiek betetzen direla bermatzeko zigor klausula egokiak.

Ahal den guztietan, artikulua honetan azaldu diren ingurumen irizpideak aplikatuko zaizkie udal langileek egiten dituzten administrazio lanei eta bestelakoei.

**49. artikulua. Jasangarritasun energetikoa eta mugikortasuna**

Jasangarritasun energetikoari eta mugikortasunari dagokienez, indarrean dagoen araudi aplikagarria aplikatuko da. Modu osagarrian:

- Energia auditoretza galdagarria udal eraikin guztien gainean egingo da, haien potentzia termikoa 70 kW-tik beherakoa izan ala ez.

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak instalatzea sustatuko da.

**50. artikulua. Ekonomia zirkularra**

Euskadi 2030erako Ekonomia Zirkularren Estrategiaren ezarpen orokorra bultzatuko du udalak, bai eta estrategia hori aldatzen edo osatzen duten beste tresna batzuk ere, eta, berariaz, estrategia horretan jasotako ekintza hauek:

– 1.6. Garapen Agentziek ekonomia zirkularren hedapenean eskualde mailan duten zeregina bultzatzea.

– 2.4. Ekonomia zirkularren printzipioak plan eta politika publikoetan txertatzea eta horien garapena bultzatzea.

– 4.5. Eraikin eta bulego handiak eraisteko, birgaitzeko eta mantentzeko irizpideak helburu dituzten udal akordioak bultzatzea.

– 6.3. Bigarren eskuko produktuen bilketa eta konponketa bultzatzea udalerrian eta eskualdean.

– 6.4. Informazio kanpainak egitea herritarrentzat, kontsumo jasangarriko ohiturak sustatzeko.

– 7.1. Herritarrak kontzientziatzea elikadura kontsumo arduratsuagoaren eredian, elikagaiak alferrik galtzeko arazoak azpimarratuta.

– 7.2. Kontsumitzaileak elikagaien soberakinak aprobeitatu dituzan sustatzea eta/edo, geroago, sortzaile handiek dohaintzan ematea.

– 7.3. Lehen sektoreko eta nekazaritzako elikagaien industriako azpiproduktuen erabilera berritzailea bultzatzea, lehengai propio gisa edo beste sektore batzuentzat.

– 7.4. Konpostatzeko materia organikoaren berreskurapena sustatzea udalerrian edo eskualdean.

– 8.2. Kontsumitzaileari erabilera bakarrekoko plastikozko produktuen kontsumoa murrizteko irizpideak ematea eta horretan engaiatzea.

– 9.3. Administrazio publikoetako hondakinen kudeaketaren hobekuntza bultzatzea, beren jardueren garapenean.

– 9.4. Hondakinen kudeaketa hobetzeko finantza tresnak ezartzea eta azpiegitura estrategikoak garatzeko balizko ekimen publiko pribatuak hedatzea.

Zehazki, udalak bando bat zabalduko du etxeko hondakinen motaren bat biltzeko edo kudeatzeko baldintzak aldatzen diren bakoitzean. Nolanahi ere, etxeko hondakin guztiei buruzko informazioa eguneratuta izango du udalaren webgunean, bereziki, kasu bakoitzean onartzen diren hondakin motei, egutegiari eta bilketa ordutegiari dagokienez.

**51. artikulua. Garapen Jasangarriaren Helburuak sustatzea**

Udalak, bere eskumenen esparruan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartutako Garapen Jasangarriko 2030 Agendan jasotako garapen jasangarriaren helburuak bete daitezen sustatuko du.

**IV.TITULUA. ZEHATZEKO AHALA****I. kapitulua. Xedapen orokorrak****52. artikulua. Xedea**

Titulu honen xedea da ingurumenaren arloan eta udalerriko eremuaren barruan udalak zehatzeko duen ahalmenaren egikaritzea arautzea.

**53. artikulua. Integrazio oinarriak eta arauak**

Indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, udalaren zehatzeko ahalmena lege mailako arau batek berariaz ematen dionean soilik egikarituko da, eta horretarako araututako prozedura aplikatuko da, Herri Administrazioen Zehatzeko Ahalmena arautzen duen legeriak, Administrazio Prozeduraren legeriak eta zehapen araubide desberdinek ezartzen dituzten sektore legeek xedatutakoari jarraiki.

Ordenantza hau betetzen ez dela antzematen denean ere udalak zehatzeko ahalmena egikaritu ahalko du, ez betetzeak halakotzat jotzen direnean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz.

#### **54. artikulua. Lehentasuna**

Toki Araubidearen legerian adierazten denaren arabera, udalari zehatzeko eskumena aitortu edo ematen dioten eta sektore araudian jasotzen diren zehapen araubideek titulu honetan jasotako Toki Araubidearen legerian xedatutako araubide orokorraren aldean lehentasuna izango dute aplikatzeko orduan.

#### **55. artikulua. Organo eskuduna**

Udalaren eskumenari dagozkion zehapen guztiak Alkatetzak ebatziko ditu.

#### **56. artikulua. Kautelazko neurriak**

Salbuespenez eta zehapen espedientea abiarazi aurretik, udal agintaritzak zehapen izaerarik ez duten kautelazko ondoko neurriak harrarazi ahal izango dizkio arau hauste gisa tipifikatutako edozein ekintzaren ustezko arduradunari:

- Lanak edo jarduerak etetea.
- Aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak zigilatzea.
- Ingurumeneko kaltea zabaltzea eragozten duen zuzentze, segurtasun edo kontrolerako beste edozein neurri.

### II. kapitulua. Erantzukizunak

#### **57. artikulua. Zehapena eta erantzukizuna**

Administrazioko arau hausteen ondorioz erantzule diren pertsona fisiko eta juridikoei bakarrik ezarri ahalko zaizkie zehapenak, baita arau haustea arauak ez betetze hutsa bada ere.

Zehapen prozeduraren ziozko administrazioko erantzukizunak ingurumeneko kaltearen konponbidea erreklamatzeko prozedurekin bat etorriko dira, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 27/2007 Legeak dioenarekin bat.

Lege xedapen batean jasotako eginbeharrak pertsona batek baino gehiagok bete behar badituzte elkarrekin, arau haustea daudenean denak izango dira egindako arau hausteen eta horien egintza ezartzen zaizkien zehapenen erantzule solidarioak.

Inork administrazioko araurik hauts ez dezan zaindu behar duten pertsona fisiko eta juridikoak, lege ezarritako eginbehar hori betetzen ez badute, arau hauste horien erantzule subsidiarioak edo solidarioak izango dira, betiere zehatzeko araubideak arautzen dituzten legeek hori xedatzen badute.

### III. kapitulua. Proporzionaltasuna eta preskripzioa

#### **58. artikulua. Proporzionaltasuna**

Arau hauslearentzat arauak haustea ez da hautsitako arauak betetzea baino onuragarriagoa izango eta hori kontuan izan beharko da diru zehapenak ezartzerakoan.

Udalak zehapenak ezartzerakoan, arau haustea eragin duen ekintzaren larritasuna eta aplikatutako zehapena bat datozela zainduko da; ezarriko den zehapenaren mailaketa egiteko, honako irizpide hauek aplikatuko dira bereziki:

- Nahita egin den edo behin eta berriz egin den.
- Eragindako kalteak nolakoak diren.
- Urte berean antzeko arau haustea berriro egitea, ebazpen irmoz hala egin dela adierazi bada.

**59. artikulua. Preskripzioa**

Arau hausteen eta zehapenen preskripzio epea dagokien legeetan jasoko da. Lege horietan eperik finkatzen ez bada, arau hauste oso larriak bost urteko epean preskribatuko dira, arau hauste larriak hiru urteko epean, eta arau hauste arinak urtebeteko epean; hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenen preskripzioa bost urtekoa izango da, hutsegite larriengatik ezarritako zehapenena hiru urtekoa, eta hutsegite arinengatik ezarritako zehapenen preskripzioa urtebetekoa izango da.

Arau-hausteen kasuan, preskripzio-epea arau-haustea egin zen egunetik hasiko da zenbatzen. Etengabeko arau hausteak eginez gero, preskripzio aldia jarduera amaitzen den egunetik hasiko da zenbatzen edo, bestela, arau haustea egin deneko azken ekintzatik hasita. Arau-hauste iraunkorren kasuan, legez kontrako egoera ezabatzen den egunetik hasiko da zenbatzen preskripzio epea. Arau haustea dakarten egintzak edo jarduerak ezagutzen ez badira kanpoko zantzurik ez dagoelako, epea egintzak agerian jartzen direnetik aurrera zenbatzen hasiko da.

Zehapenei dagokienez, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen preskripzio epea.

Preskripzio epeen etenaldiak eta berrasteak araudi orokor aplikagarriak arautuko ditu.

## IV. kapitulua. Zehapen prozedura

**60. artikulua. Arauetara igortzea**

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zehatzeko Ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen III. kapituluak eta horri lotutako gainerako arauak xedatutako prozeduraren bidez baliatuko du udalak zehatzeko ahala, arloa zein den aplikagarria den legeria sektorialak jasotako berezitasunei kalterik egin gabe.

## V. kapitulua. Arau hausteak eta zehapenak

**61. artikulua. Arau hausteak**

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak edo lege hori ordeztzen duen beste batek tipifikatutako arau hausteen osagarri gisa, bai eta arau sektorialetan jasotako arau hausteen osagarri gisa ere, ordenantza honen bidez arau haustetzat tipifikatzen dira hurrengo artikuluetan jasotako gertakariak.

**62. artikulua. Arau hauste arinak**

Zarata ateratzeari dagokionez, arau hauste arintzat kalifikatuko da honako hau:

– Aplikagarria den araudian ezarritako soinu mailaren muga onargarriak 5 dezibelatik (dB) 10 dezibelera (dB) gainditzea.

Hondakinen arloan, honako hauek dira arau hauste arinak:

- Gaikako bilketa duten hondakinak batera botatzea.
- Hondakinak beren izaerarekin bat ez datozen edukiontzietan edo bilketa-guneetan uztea.
- Hondakin mota bakoitza dela eta araututako bilketa egunak, orduak eta baldintzak ez errespetatzea.
- Tolestu edo zatitu daitezkeen hondakinak horrela ez botatzea.
- Inausketa eta lorezaintzako hondakinak komunitateko konpostatze instalazioetan edo hondakin organikoa biltzeko zirkuituan uztea.

Materia, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuak biltegitzeari dagokionez, arau hauste arintzat joko dira honako hauek, betiere aplikagarria den udalez gaindiko araudiarekin kontraesanean ez badaude:

– Materia, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuak biltegitzea, baita ontzi edo andeletan ere, lurzoru naturalaren edo zolaten gainean, baldin eta, udal teknikarien iritziz, iragazgaitasun nahikoa bermatzen ez badute.

– Gai, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuak kanpoan eta estalkirik gabe biltegitzea, ontzietan edo andeletan egon arren, udal teknikariek hori egiteko txosten arrazoitua egin ezean.

– Biltegitutako materia, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuen balizko ihesei edo isuriei eusteko kubeta, erretilu edo bestelako bitartekorik ez izatea.

– Gai, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuen biltegitzeak organo eskudunaren aurrean legezatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa ez edukitzea, hala badagokio, indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera.

Ingurunea zaintzeari dagokionez, honako hauek dira arau-hauste arinak:

– Kanpatzea.

– Ibilgailuak edo ziklomotorrak konpontzea edo garbitzeko nahiz mantentzeko lanak egitea.

– Publizitatea jartzea alde aurreko baimenik gabe.

– Faunaren lasaitasuna asaldatzen duten zaratak egitea.

### **63. artikulua. Arau hauste larriak**

Zaratari dagokionez, honako hauek hartuko dira arau hauste larritzat:

– Aplikagarria den araudian ezarritako soinu mailaren muga onargarriak 10 dezibelek (dB) gora gainditzea.

– Zarataren ziozko eragozpenak saihesteko udal organo eskudunek ezarritako neurri zuzentzaileen epeak edo edukiak ez betetzea.

– Zarataren arloko hirugarren arau hauste arin bat egitea urtebeteko epean; arau hauste hori larritzat joko da.

Hondakinen arloan, arau hauste larritzat joko dira ondokoak:

– Urtebeteko epean, hirugarren arau hauste arin bat egitea; arau hauste hori larritzat zehatuko da.

Materia, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuak biltegitzeari dagokionez, arau hauste larritzat joko da ondokoa, baldin eta aplikatzea den udalez gaindiko araudiarekin kontraesanean ez badago:

– Urtebeteko epean, hirugarren arau hauste arin bat egitea; arau hauste hori larritzat zehatuko da.

Ingurunea zaintzeari dagokionez, honako hauek dira arau hauste arinak:

– Ibilgailuak edo ziklomotorrak erabiliz zirkulatzea edo aparkatzea zirkulatu edo aparkatu ezin den lekuetan eta/edo baimendutako datetatik kanpo.

– Animaliei eragozpenak eragitea.

– Landaredia edonola manipulatzeko edo suntsitzea, honako eragiketa hauek eginda: zuhaitzak berriazko baimenik gabe moztea edo kimatzea; zuhaitzak eta zuhaixkak astintzea edo zatitzea; azalak grabatzea edo markatzea; azaletan, iltzeak jostea; eta abar.



- Edozein motatako objektu, substantzia edo jariakin botatzea edozein ur-eremutan.
- Eremu horietako baldintza ekologikoak aldarazten dituzten produktu kimikoak erabiltzea edo isurketak egitea.
- Hondakinak adierazitako lekuetatik kanpo uztea.
- Pertsonen eragozpenak edo istripuak eta ingurumenari nahiz hiriko altzariei kalteak edo narriatzeak eragin ahal dizkieten jolasak, kirolak edo bestelako jolas jarduerak egitea, berariazko baimenik izan ezean.
- Lanek eragindako berdeguneetako elementuak behar bezala ez babestea.
- Eraikuntzako materialak, obra hondakinak edo erremintak ekipamendu edo apainketa elementuetan, soropiletan, zuhaixka edo zuhaitzen sailetan eta horien inguruetan edo zuhaitz txorakoetan uztea.
- Zangak edo hondeatze lanak egiten direnean, landare elementuekiko arauzko distantziak ez errespetatzea.
- Obrek edo bestelako jarduerak eragindako berdegunearen jatorrizko egoerara lehene-ratzeko epeak ez betetzea.
- Urtebeteko epean, hirugarren arau hauste arin bat egitea; arau hauste hori larritzat ze-hatuko da.

Industria establezimenduetan suteen aurkako segurtasun araudia onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren eraginpean ez dauden establezimenduetan ezarri beharreko suteen aurkako babesari dagokionez, eraikuntzaren kode teknikoaren edo horiek ordeztzen dituen beste araudi baten arabera, honako hauek joko dira arau hauste larritzat:

Proiektuetan jasotzen diren eta jarduera lizentzietan eskatzen diren suteen aurkako babes neurriak edo jarduera legezztatzen den unean indarrean den araudia kontuan hartuta bete behar diren neurriak ez betetzea, betiere arau hauste oso larria ez denean.

– Establezimenduetako okupatzaileei ebakuazioa oztopatzea edo zailtzea, egintza horrek pertsonen segurtasunerako arrisku oso larria ez dakarrenean.

Errekuntza eragiketei dagokienez, honako hauek joko dira arau hauste larritzat:

– Errekuntza-eragiketak egitea ekipo edo instalazio desegokietan eta/edo biltzeko, arazteko, gidatzeko eta husteko gailu egokirik ez dutenetan.

– Zeinahi hondakin (etxeakoak, merkataritzakoak, industriakoak, nekazaritza eta abeltzaintzakoak edo beste edozein jatorritakoak) erretzea, organo eskudunak aldeztatik emandako baimenik gabe.

– Arotzeria lanetatik, altzari fabriketatik, palet, zutoin, trabes, hesi, taula aglomeratuetatik eta, oro har, tratamendu kimikoak izan dituzten edo tratamendu horien hondarrak izan ditzaketen edozein zuretatik datozen zur hondakinak erretzea.

#### **64. artikulua. Arau hauste oso larriak**

Zaratari dagokionez, honako hauek joko dira arau hauste larritzat:

– Zarataren eta bibrazioen arloko neurri zuzentzaileak edo konpontzaileak behin eta berriz ez betetzea.

– Eskatzen diren datuak emateari uko egitea edo, jardueren baldintza akustikoei dagokienez, udal administrazioaren ikuskapen lana gogoz edo era pasiboan oztopatzea.

– Urtebeteko epean, zarataren arloko hirugarren arau hauste larri bat egitea; arau hauste hori oso larritzat joko da.

Hondakinei dagokienez, arau hauste larritzat joko da ondokoa:

– Urtebeteko epean, hirugarren arau hauste larri bat egitea; arau hauste hori oso larritzat zehatuko da.

Materia, substantzia, produktu edo hondakin arriskutsuak biltegitzeari dagokionez, arau hauste larritzat joko da ondokoa, baldin eta aplikatzekoa den udalez gaindiko araudiarekin kontraesanean ez badago:

– Urtebeteko epean, hirugarren arau hauste larri bat egitea; arau hauste hori oso larritzat zehatuko da.

Ingurunea zaintzeari dagokionez, honako hauek dira arau hauste oso larriak:

– Sua piztea baimendutako lekuetatik eta datetatik at.

– Hegaztiak, arrainak eta gainerako animaliak hiltzea, ehizatzea, arrantzatzea edo kaltetzea, berariazko baimenik izan ezik.

– Edozein animalia espezie abandonatzea edo ingurunean nahita sartzea.

– Berezizat edo tokiko interesekotzat jotzen diren zuhaitzak moztea, zuhaitz horien heriotza eragitea edo zuhaitz horiek galtzea eragin dezaketen kalteak edo mutilazioak eragitea.

– Berdeguneetan edozein motatako obrak, eraikuntzak edo eraispentak egitea, udalaren nahitaezko baimenik gabe.

– Urtebeteko epean, hirugarren arau hauste larri bat egitea; arau hauste hori oso larritzat zehatuko da.

Industria establezimenduetan suteen aurkako segurtasun araudia onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren eraginpean ez dauden establezimenduetan ezarri beharreko suteen aurkako babesari dagokionez, eraikuntzaren kode teknikoaren edo horiek ordeztzen dituen beste araudi baten arabera, honako hauek joko dira arau hauste larritzat:

– Proiektuan edo jarduera lizentzian jasotzen diren baldintzak ez betetzea, edo kanpoko edo barruko hedapenari, ebakutzeko egin beharreko distantzietan, irteera kopuruari, suteen aurka babesteko bitarteko kopuruari eta motei, suhiltzaileen esku hartzeari, edo egiturak suarekiko duen erresistentziari lotuta bete behar diren neurriak ez betetzea.

– Sektorizazioari, arrisku bereziko lokalei, ezkutuko espazioei eta eraikuntza materialek suarekiko duten erresistentziari eta egonkortasunari lotuta udalak eskatzen dituen alderdiak ez egiaztatzea.

– Establezimenduetako okupatzaileei ebakuazioa oztopatzea edo zailtzea, egintza horrek pertsonen segurtasunerako arrisku oso larria dakarrenean.

– Eraginkorrek ez diren suteen aurkako babesteko bitartekoak izatea, modu egokian jarrita ez daudelako, helezina den leku batean daudelako nahiz edozein arrazoi dela eta egoera txarrean daudelako.

Errekuntza eragiketegi dagokienez, honako hauek joko dira arau hauste oso larritzat:

– Urtebeteko epean, hirugarren arau hauste larri bat egitea; arau hauste hori oso larritzat zehatuko da.

#### **65. artikulua. Arau hauste arinak, larriak eta oso larriak**

Sortu den arriskua edo benetan gertatu den kaltea dirutan zenbatzeko modukoa ez bada, udalak osasun edo ingurumen txostena edo beste era bateko txostena (edo txostenak) eskatu ahal izango du, zehapen espedientearen barruan, gertaeraren ondorioak oso larriak, larriak edo arinak izan diren zehazte aldera.

Ildo horretan, txosten hori (edo horiek) kaltetutakoei erakutsiko zaie, egoki iruditzen zaizkien alegazioak egitea izan dezaten, eta, hala nahi badute, egoki iruditzen zaizkien txosten eta agiri tekniko guztiekin batera aurkez dezaten.

**66. artikulua. Ordenantza ez betetzeagatiko zehapenak**

Ordenantza honetan tipifikatutako arau haustek egiteagatik ondoko zehapenak ezarri ahalko dira:

- Arau hauste arinetan: 1.500 eurorainoko isuna.
- Arau hauste larrietan: 3.000 eurorainoko isuna.
- Arau hauste oso larrietan: 6.000 eurorainoko isuna.

Isunaren zenbatekoa arau haustearen ondorioz lortutako onura baino txikiagoa bada, zehapena handitu egingo da, gehienez ere, arau hausleak ateratako etekinaren zenbatekoaren halako bi arte.

**67. artikulua. Sektoreko araudia ez betetzeagatiko zehapenak**

Sektoreko araudiak udalari zehatzeko eskumena ematen dionean, ezartzen diren zehapenak kasuan kasuko xedapen orokorretan adierazitako zenbatekoak errespetatuko dituzte.

## VI. kapitulua. Betearaztea

**68. artikulua. Premiamendu bidea**

Premiamendu bidez eskatu ahal izango da ezarritako diruzko zehapenen zenbatekoa, her-tsatzeko isunena eta ordenantza honetan xedatutako arau hausteen ondorioz kaltetutako on-dasunak leheneratzeko jarduerak edo ingurumen legezkotasuna era subsidiarioan gauzatzeak eragindako gastuena.

Helburu horretarako, isun horiek likidoak izan beharko dute eta premiamendua baino lehen borondatez ordaintzeko eskatuko da.

## VII. kapitulua. Administrazio errekurtsioak

**69. artikulua. Errekurtsoak**

Behin betiko ebazpenen eta udalaren izapide egintzen aurka, baldin eta azken horiek zuzenean edo zeharka gaiaren funtsa erabakitzen badute, prozedurarekin jarraitzea eragozten badute edo defentsa-gabezia edo bidezko eskubide eta interesei kalte konponezina eragiten badiete, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahalko dute.

Administrazio bidean irmoak diren egintzen aurka, berrikusteko errekurtsio berezia jarri ahal izateko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 125.1 artikulua xedatutako inguruabarren bat bete beharko da.

**70. artikulua. Betearazi beharra**

Edozein errekurtsio aurkeztzen bada, xedapen batek kontrakoa ezartzen duenean izan ezik, ez du etengo aurkaratutako egintzaren betearazpena. Hala ere, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak, eteteak interes publikoari edo hirugarrenei eragingo liokeen kaltea eta errekurritutako egintzaren berehalako eraginkortasunaren ondorioz errekurtsogileari eragingo liokeen kaltea erkatu ondoren, aurkaratutako egintzaren betearazpena eten ahalko du, ofizioz edo errekurtsogileak eskatuta, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

- Egintza betearazteak kalte konponezinak edo konpongaitzak ekartzea.
- Aurkaratzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikulua xedatutako erabateko deuseztasunaren arrazoietakoa batean oinarritzea.

**71. artikulua. Isilbidezko etendura automatikoa**

Aurkaratutako egintzaren betearazpena eten egin dela ulertuko da, baldin eta, etete-kaera administrazio edo erakunde eskudunaren erregistro elektronikoan sartu eta hilabete igaro ondoren, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak berariazko ebazpenik eman eta horri buruz jakinarazi ez badu.

**72. artikulua. Errekurtsoa jartzea eta epea**

Errekurtsoa jartzean, honako hauek adierazi beharko dira, gutxienez:

- Errekurtsogilearen izen-abizenak eta bera identifikatzeko datuak.
- Zein egintzaren aurka egiten den errekurtsoa eta zergatik.
- Tokia, eguna, errekurtsogilearen izenpea, jakinarazpenak jasotzeko bidea eta, hala bada-gokio, lekua.
- Zein administrazio organo, zentro edo unitateri bidali zaion, eta haren identifikazio kodea.
- Xedapen berezietan ezarritako gainerako zehaztasunak.

Errekurtsoa organo eskudunari bidali beharko zaio, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 14.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, edo hura ordeztzen duen beste baten arabera.

Berraztertze errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, egintza espresua denean. Epe hori amaitu ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezin izango da jarri, edota, hala badagokio, berrikusteko errekurtsorik berezia.

Egintza espresua ez bada, eskatzaileak eta beste interesdun batzuek berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko dute edozein unetan, berariazko araudiarekin bat etorritik, presuntziorik egintza gertatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsoren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da, gehienez ere.

Berraztertze errekurtsoren ebazpenaren aurka ezin da berriz berraztertze errekurtsorik jarri.

**AZKEN XEDAPENAK****I. kapitulua. Xedapen indargabetzailea**

Bakarra: indargabetzailea

Titulu hauetan xedatzen denaren kontra doazen udal xedapen guztiak indarririk gabe geratuko dira. Bereziki, Legutioko ingurumena babesteko ordenantza indargabeturik geratu da; ordenantza horren behin betiko onarpena 2013ko abuztuaren 26ko ALHAOn argitaratu zen.

**II. kapitulua. Azken xedapena**

Bakarra: Indarrean hastea

Ordenantza hau bere behin betiko onetsitako testu osoa ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan hasiko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua ezarri bezala.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioarenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.